

Testuen ulermena Lantzen

Irakurri bitartean erabil daitezkeen tresna lagungarriak


Inolako zalantzarik gabe, irakaslea da testuak ulertzen laguntzeko eragilerik garrantzitsuenetako bat, bai irakurketa prozesua gidatu eta orientatzeko, bai elkarrizketa bultzatzeko. Prozesu hori eraginkorragoa izan dadin, arbel digital elkarreragilea (ADE) erabil daiteke.

Ikasgelan landuko dugun testua proiektatu eta ADEk aukera ematen du testuaren atalak nabarmentzeko, bertan azpimarratzeko, Interneteko helbideetara jo eta hiztegieta bilatzeko....

Honako jarduera hauek egin daitezke:

- Hautatutako testuaren paragrafo bat irakurri eta lexikoa identifikatu, ezaguna den ala ez antzemateko.
- Paragrafo horretako hitz gakoak azpimarratu.
- Paragrafo bakoitzak biltzen duen ideia nagusia idatzi bizpahiru hitzen bidez.
- Kontrolatu atalez atal ikasleek ulertzen duten ala ez.

Hitzak nabarmentzeko duen tresnaren ariketa horiek erraz egin daitezke. Koloreen bidez bereizi daitezke hitz ezezagunak eta beste kolore batez, hitz gakoak, testuaren ulermena bideratzen dutenak, alegia. Hala behar izanez gero, on-line hiztegieta <http://www.hiztegia.net/> ere jo daiteke eta irakurgaiari lotutako hiztegitxo egin; betiere testuak berak haien esanahia antzemateko aukerarik ematen ez badu.



Horrez gain, aukera ematen duenez idazteko, paragrafoen ideia nagusia idatz daiteke testuaren alboan. Prozesu hori lankidetzan planteatu daiteke, bikoteka edo taldeka, ikasleek elkarri laguntzeko testuaren lanketan eta interpretazioan.

ADERen aukeretan aukeretan bada, bada, bestalde, gortinatxoak erabiltzekoa. Oso baliabide egokia da testua paragrafoz paragrafo aurkezteko eta ulermen prozesua hobeto antolatzeko: testu txatalak irakurri ahala ikasleek hurrengo zatien inguruko hipotesiak egin ditzakete edota gaiari koherentzia emango dion hurrengo atalen ideia nagusia(k) antzeman...

Horrez gain, Irakurle digitala txertatzeko aukera ere oso kontuan hartu behar dugu. Hala testua irakurri eta aldi berean entzun ahal izango dute ikasleek. Horrela, zailtasunak dituzten ikasleek (dislexia edo hizkuntza komunikaziorako gaitasuna maila apala...) errazago ulertu ahal izango dute testua. (helbide honetan deskargatu daiteke <http://berritzegunenagusia.eus/irakurledigitala/> (Oharra Komunikabideetan-EITBn esaterako, badago testuak entzuteko aukera).

<http://educacontic.es> egokitua